

HITZALDIA

XXI. mendeko teknologia gure hirietan garraio publiko hobe eta mugikortasun iraunkorragoa edukitzeko.

Urriak 9, asteazkena, **11:30ean**, Donostiako Udaletxeko **Osoko Bilkuren Aretoa** (Iraupena: ordu bete gutxi gora-behera)


Izen ematea doakoa da

Posta elektronikoko bidez: comunicacion@dbus.es / **Telefonoz:** 943 000 200

Hizlaria

- Carlos F. Daganzo-

Garraio Zientziako Katedraduna Berkeleyko Unibertsitatean (Kalifornia), eta **Honoris Causa doktorea** Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan. Hiri Garraioaren Etorkizunari buruzko **Volvo Fundazioaren Bikaintasun Zentroko zuzendaria** da, eta irakasle izan da **Massachussets Institute of Technology (MIT)** institutu ospetsuan.



Hainbaten iritziz, Carlos F. Daganzo irakaslea da hiri eremuetako taldeko garraioen sareak aztertu eta konfiguratzeko lanetan diharduen **munduko ikertzailerik hoberena**, eta, horrez gain, bost liburu zientifikoren egilea da eta 150 artikulua baino gehiago argitaratuta ditu izen handiko nazioarteko aldizkarietan. Bere ikerketa lanak **hiri garraiorako eredu berriak aztertzer**a bideratuta daude nagusiki, garraioaren kudeaketa eraginkorragoa eta iraunkorragoa izan dadin.

Hirietako espazioen diseinua eta bertako garraio sarearen ezaugarriek eragin zuzena dute hiri horietan bizi diren pertsonen bizitza kalitatean. Teknologia berriei esker, **ekologia, iraunkortasuna eta efizientzia** garraio publikoaren konfigurazioa egituratzen duten kontzeptuak dira.

Hitzaldian azken aurrerapen teknologikoen hirien bizi-kalitatea hobetzeko egin dezaketena aztertuko da. Era berean, Daganzo irakaslea eta bere taldeak kontinente ezberdinetako hainbat hiritan bertako hiri-garraio publikoaren konfigurazio eta kudeaketa jasangarri baten aldeko lanean izandako elkarlan eta esperientziak azalduko dira. Besteak beste, Bartzelona, Sacramento (Kalifornia), Chengdu eta Nanjing (Txina), Amman (Jordania) eta Nairobi (Kenia), eta baita Donostian ere izandako esperientziak izango dira mintzagai.

